

Arabako errepideak hobetzeko lanetan egiten zuen inbertsioari eutsiko dio Foru Aldundiak

Jarraipena emango die N-240 eta A-625 errepideak berritzeko lanei

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 18a. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak aurten jarraitu egingo du Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko abian dauden proiektu nagusiak gauzatzen, eta, horrela, N-240 errepidea, Legutio inguruan, eta A-625 errepidea, Amurrio eta Urduña artean, berritzeko aurreikusita zegoen inbertsioari eutsiko dio, bai eta Azazetako zeharbidea urbanizatzeko eta trafikoa baretzeko sistemak hornitzeko inbertsioari ere.

Hiru proiektu horien inbertsioa, guztira, 30 milioi eurotik gorakoa da, eta horietatik 12 milioi euro 2020ko ekitaldi honetan erabiliko dira, foru aurrekontuetan jasota dagoen bezala.

Javier Hurtado Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren foru diputatuak gaur egin du iragarpena Arabako Batzar Nagusietan egindako agerraldian, COVID-19ri lotutako krisiari aurre egiteko bere ardurapeko arloetan egiten ari den partidetako berrantolaketa lana azaltzeko. Hurtadok, halaber, errepide sarea onik zaintzeko lanetarako eta foru garraioa finantzatzeko programari eusteko "erabakia" hartu duela adierazi du.

Hurtadok jakinarazi du bere ardurapean dituen arloetako urteko aurrekontuak birmoldatzen ari direla oraindik, ziurgabetasuna eragiten duten hainbat elementu aldi berean gertatzen ari direlako, hala nola bilketaren jaitsiera maila eta zorpetzeko marjina. Ekonomia eta aurrekontu egoera ez dago itxita, eta, horregatik, egokiagoa da une honetan baliabideak eta beharrak berrantolatzeko irizpideei eta ildo orokorreari buruz hitz egitea.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila berrantolaketa hori egiten ari da, oinarritzko lau irizpide oinarri hartuta: gizarte politikak lehenestea, pertsona zaurgarrienak artatzeko eta babesteko; segurtasuna finkatzea politika publikoen ardatz nagusi gisa, bai errepideen arloan, bai garraioaren arloan; inbertsio publikoa erabiltzea ekonomia eta enplegua mantentzeko tresna gisa; eta mugikortasun jasangarria bultzatzea.

Izaera inbertsiogilea

Foru diputatuak iragarri du irizpide horiek oinarri hartuta lanean ari direla aurten Errepideen Foru Sarea modernizatzeko abian diren proiektu nagusiak gauzatzen jarraitzeko, eta berariaz aipatu ditu N-240 errepidea egokitzea Legutio inguruan eta A-625 errepidea hobetzea Amurrioko industrialdeen eta Urduñak Bizkaiarekin muga egiten duen lekuaren artean.

Bi kasuetan, bihurtune arriskutsuak eta sestra aldaketak kentzeko, finketarako eta industrialdetarako sarbide seguru berriak sortzeko eta, azken batean, istripu tasa handia zuten bide zatietako segurtasuna hobetzeko obrak dira. N-240 errepideko lanak 2020ko udazkenean amaitzea dago aurreikusita; A-625 errepideko lanak, berriz, 2021. urtearen amaierara arte luzatuko dira.

“Azazetako zeharbidea urbanizatzen eta trafikoa baretzen jarraituko dugu: aurrekoekin alderatuta esku hartze apala da, baina herri honen aspaldiko eskaera bat asetzen du. Zeharbide berria errealitate bihurtuko da datorren ekainean”, gaineratu du.

Hurtadok azaldu du, halaber, onik zaintzeko eta mantentze lanetako programari eusteko "erabakia" hartu duela, bai eta Errepideen Foru Sareo segurtasunaren arloan aurreikusita dauden gainerako inbertsioei eusteko ere. “Azken Gobernu Kontseiluetan hartutako zenbait erabakitan zehazten da hartutako erabaki hori: bi zoru kontratu, guztira, 1,4 milioikoak, eta Arabako errepideetako segurtasun sistemak hobetzeko hirugarren kontratu bat, 600.000 euroekin hornitua.

“Sail inbertsiogilea gara eta, beraz, gure erabakiak garrantzitsuak dira Arabako ehun ekonomikoari eta enpleguari eusteko. N-240 eta A-625 errepideak hobetzeko lanetan eta gure errepideen kontserbazioan egindako inbertsioari eustekak esan nahi du proiektu horiek gauzatzen parte hartzen duten Arabako enpresetan lan zorroa eta zuzeneko eta zeharkako enplegua mantentzea”, azpimarratu du.

Halaber, ziurtatu duenez, "Foru garraioa behar bezala finantzatzen jarraituko dugu, arabarrei mugikortasun segurua bermatzeko. Onartzen dut denbora beharko dugula krisi aurreko bidaiari kopuruak berreskuratzeko, baina ezin dugu eta ez dugu onartu behar ibilgailu pribatua gure hirietan konkistatzen ari garen eta konkistatzen jarraitu behar dugun espazio publikoa okupatzera eramango duen inboluziorik.

Eskualde garraioa

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak agerraldia egin du gaur goizean Arabako Batzar Nagusietan, berak hala eskatuta, eskualdeko garraio zerbitzu berriaren ebaluazio prozesua azaltzeko eta prozesu horretan aldaketak sartzeko, Arabako landa gune txikietan bizi diren pertsonen mugikortasun beharrei hobeto erantzuteko asmoz.

Ebaluazio prozesu hori kuadrilla, udal eta taxilariekin batera egin zen, eta joan den otsailaren 24tik aurrera zenbait berritasun eskaini ziren; esate baterako, erabiltzaileak osasun zentroetara eta etxebizitza partikularretara zuzenean hurbiltzeko aukera, ezarritako geralekutik urrun daudenean, betiere beste erabiltzaile batzuei eragiten ez bazaie.

Billoda

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila Billoda herriko sarbideak hobetzeko egiten ari den azterlanen berri eman du Javier Hurtadok gaurko agerraldian, egin dituen agerraldietatik hirugarrenean. Hurtadok azaldu duenez, azterketa horiek zonaldean zundaketa arkeologikoak egiteko zain daude, Iruña-Veleiako aztarnategirako proposatutako mugaketaren barruan dagoelako.

Elorriaga eta Miñao

Azkenik, diputatuak Elorriaga eta Miñao herrietarako - Gasteizko udalerrikoak biak- garraio publikoaren zerbitzuaren egoerari buruzko galdera bati erantzun dio bilkura berean, eta gaia Arabako Mugikortasun Agintaritzaren (AMA) hurrengo bilerara eramateko konpromisoa hartu du, irtenbide egoki bat bilatzeko asmoz.